

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako Udalbatzaren 2023ko apirilaren 19ko erabaki baten laburpena, zeinaren bidez laguntza deialdia egiten baita 2023an euskara ikasteko

BDNS (Identif.): 695797.

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik, argitaratu ematen da deialdiaren laburpena. Testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan dago ikusgai, hemen: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/695797>

Deialdiaren xedea

2022-2023 ikasturtean euskara ikasteko gastuak ordaintzen laguntzea, udako ikastaroak eta barnetegiak barne (ez ordea joan-etorri, mantenu eta ostatu gastuak), euskararen egoera normalizatzeko eta, bereziki, hizkuntza horren ezagutza eta erabilera handitzeko.

Onuradunak

Laguntza horiek eskatzeko honako betekizun hauek bete behar dira, besteak beste:

a) Donemiliagako udalerrian erroldaturik egotea, 2022-2023 ikasturtea hasi baino urtebete lehenagotik gutxienez; baldin eta, ikasturtean zehar, erroldan baja eragiten bada, dirulaguntza erroldaturik emandako denboraren proportzioan emango da.

b) Izena ematean 16 urtetik gora izatea.

c) Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) onartutako euskaltegiren baten matrikulatuta egotea. (HABE).

d) Barnetegiren batean ikasiz gero, aurreko betekizuna betetzea. Ikastaroetarako baino ez da emango dirulaguntza. Ostatua eta mantenua ikasleak ordainduko ditu.

e) Hautatutako ikastaroa euskalduntze edo alfabetatze maila baten parekoa izan behar da gutxienez.

f) Gutxienez eskola orduen ehuneko 80ra joan behar da edo matrikulatutako ikastaroa gainditu.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2023ko apirilaren 19an egindako bilkuran onetsiak.

Zenbatekoa

Deialdi honen zuzkidura 2.000,00 euro da (335 482000 aurrekontu aplikazioa).

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak Donemiliagako udaletxean aurkeztu beharko dira, 2023ko urriaren 31 baino lehen.

Erdoña, 2023ko maiatzaren 17a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO